

# FILMEEN HELBURUEN DESKRIBAPENA ETA DATUAK

## **ANIMAL CHANNEL**

Kasu honetan animaziozko film batetaz ari gara eta bertan balio hezigarri eta pertsonal ugari aurkitu ditzakegu; atentzio berezi batekin filmatu baita. Obra hau, ikasleen bereganatze lanarekin bat adiskidetasuna, besteekiko harremanak edota helburuak lortzeko taldean lanak garatzeko garrantziarekin erlazionatutako hainbat eta hainbat balio ekartzen ditu. Haurretan taldeko lana sustatzen duen filma dugu hau.

## **GOAZEN**

Barnetegi batean dauden gaztetxoek istorioa da. Istorio honen eta musikaren bitartez familiarik kanpo garatzeak duen garrantzia azpimarratzen da; baita norberaren independentziaren sustapena eta ikaskide edota lagunak arteko errespetua ere. Honetaz aparte, nagusien laguntzarik gabe arazoak ebazpenaren lorpena landu nahi da. Adiskidetasun balioak film osoan zehar aurkitzen dira baita filmaren zehar garatzen diren bestelako ezaugarriak ere.

## **SUKALDE KONTUAK**

Film honetan euren arteko guztiz desberdinak diren ikasleak dituen sukaldaritza eskola aurkezten zaigu. Pertsonaiekin interkulturalitatea landu dezakegu etorkinak eta bertokoak duten elkarrekintzari esker. Lan taldea, bakoitzaren banakako gaitasunak, erantzukizunen eskuratzeak eta baita arazoak ebazpenak ere dira filmarekin landu daitezkeen zenbait arlo.

## **ANIMAL CHANNEL (Espainia, 2008)**

Maite Ruiz de Austri

Iraupena: 75 min · Animaziozkoa · 6-8 urte



### **SINOPSISIA**

Cathy zikoinak eta Nicolás saguak, jateko beste ematen dien euren zinema itxi beharko dute. Telebistaren aroa heldu da eta betiko ikusleek etxean geratzea nahiago dute telebista programa berriak ikusten. Adorea eta irudimena dute ezaugarri eta horiexek erabiliko dituzte Aita Saguk zuzendutako telebista katea berrian lan egiteko berri-biltzaile ausart gisa. Kamara eta ekipo egokia hartu eta laster ulertuko dute izarra izateko programa berezia behar dutela. Baina ez da erraza izango. Pare bat aldiz huts egin ostean zerbait originala egitea erabakiko dute: denek desagertuzat ematen duten espezie baten bila joango dira eta bidaia eta bilaketa emango dute zuzenean. Cathyk eta Nicok bost kontinenteetatik bidaiatuko dute eta baita mundu osoko lagunak ezagutu ere. Uso Migratzailearen bilaketa zoragarrian bakarrik ez daudelaz ohartuko dira.

## **GO!AZEN (Euskal Herria, 2008)**

Jabi Elortegi

Iraupena: 90 min • Fikzioa, musikala • 10-12 urte



### **SINOPSISIA**

Beñat eta Landa lagun banaezinak dira. Lehendabizikoa ikasle ona da eta adiskide hobea. Bigarrenak, ordea, zazpi asignatura suspenditu ditu, eta gurasoek udalekura bidali dute, urte osoan egin ez duena egin dezan udalekuan. Beñat prest dago duen guztia emateko bere lagunaren alde, eta horregatik erabaki du bera ere udalekura joango dela Lanadarekin batera.

Irati neska uzkurra da eta ikasle ona, baina oso ikasturte txarra pasatu du: bere gurasoek banantzea erabaki dute eta neska ez dago bere onenean. Gurasoek alaba udalekura bidaltzea erabakitzen dute, hori izango delakoan onena neskarentzat. Desire, handinahiko neska pija izan arren bihotz samurrekoa baita, Iratirekin batera joango da udalekura.

Elkar ikusi bezain laster, Beñaten eta Iratiren arteko maitemina bat-batekoa izango da. Hortik aurrera, udak beste bide bat hartuko du. Baina bien arteko maitasuna ez da beti bide leuna izango. Kanpamenduak oso neurri zorrotzak ditu nesken eta mutilen arteko harremanei dagokienean, eta beren lagunek, gainera, ez dute begiko bien arteko enamoramendua. Hori guztia gutxi balitz, Gorka, mutil mizkin aberats bat, Iratirekin kapritxatu da, eta eginahal guztiak egingo ditu Beñat hondoratzeko.

Aldi berean, udalekuko zuzendari zorrotzak sorpresa handiz eta umore txarrez bizi ditu musikako irakasle berriaren praktika pedagogikoak. Julenek ikasleei irakatsi nahi dienez, musika oso modu desberdinetan bizi daiteke, norberak jartzen duen desioaren baitan dago guztia.

## SUKALDE KONTUAK (Euskal Herria, 2008)

Aizpea Goenaga

Iraupena: 89 min · Fikzioa, komedia · DBH



### SINOPSISIA

Ekintza sukaldaritza eskola batean gertatzen da. Hemen ikusiko ditugu negar malkotan gure sei protagonistak (tipula txikitzeagatik, baina) azken kurtsoa amaitzekotan dabiltzan zazpi “etorkizun”:

Alberto (bolibiar etorkina, bertako indio itxurakoa), “Piras” (gazte bizi eta mugitua), Ikerne (herriko neska gazte modernoa, baina osasuntsu itxura duena), Galder (gainerakoak baino helduxeagoa), Xalba (surflaria, taldeko “guapoa”), eta Estefanía (sukaldaritza batere gogoko ez duen neska gaztea, bere gurasoak jatatxe txiki baten jabe dira, eta haiengandik behartuta dator).

Juantxo, maisua, gizon handikote eta triperrea da, zalapartari zoroa. Alfer koadrila horretan zentzu apur bat jartzen saiatuko da, baina kostatako lana izango da, hain zuzen ere, arazo bat bestearen ondoren etorriko zaizkio “zerutik eroriak” bezala. Sukaldari zakar hau bere ikasleekin gogaituta bizi da, izan ere, hauek asko interes handiagoa dute porroak erretzen ibiltzeari, “sukaldaritza kulturaren” transmisore izaten ikastea baino; eta sukalde zulotik diruan ola atera eta lehen bai lehen nola alde egitea da hauek buruan duten asmo bakarra, Juantxoren desesperazioa areagotzeko. Zorionez beti izaten da harri bitxiren bat, bai, bat: Alberto, etorkina.

Egun “horretan” gainera, Juantxok ezin du luzaroago jasan sukaldean dagoen kiratsa. Norbaitek janaria nonahi usteltzen utzi du, eta ezin da eraman. Garbiketa sakona egin behar da. Ikasleen protestak alferrikakoak izango dira.

Azkenean, Pirasek, usainaren arrastoa jarraituz, sabaitik datorrela asmatuko du...